

6. GAIA: JOLASA ETA MUGIMENDUA HAUR HEZKUNTZAN



82. argazkia: Jon eta Leire (urte 1).

6. GAIA: JOLASA ETA MUGIMENDUA HAUR HEZKUNTZAN

6.1. SARRERA:

“Umeak aisialdiarekin eta jolasekin gozatu egin behar du, eta gizartea, erakunde publikoen bitartez, saiatuko da eskubide hori



bermatzen”, Umeen Eskubideen Aitorpeneko zazpigarren hastapenak dioen bezala.

Jolasa umearen berezko jarduera da, jarduera naturala, eta behar bihurtzen da harentzat; ezinbestekoa da hazkunde fisikoa, intelektuala, soziala eta afektiboa lortzeko. Jolasaren bidez, umeak ongi pasatu eta nortasuna sendotzen du. Jolasaren bidez, honako hau lortu behar du umeak:

- Gauzak aztertzea eta analizatzea
- Sormenaz gozatzea
- Pentsamenduak kanporatzea
- Emozioak eta bulkadak kaleratzea
- Fantasia askatzea
- Debekatuta dagoen guztia egitea: autoa gidatzea, ama izatea, agintzea, gauzak erostea...

Jolasaren bidez, autonomia lortzen du, portaeraren eta jokaeraren oinarriak finkatzen ditu, ondorengo ikasketetan eta lanetan baliagarriak izango baitira. Jolasaren inguruan, bi kultura sortzen dira: batetik, jolasa interesgarria da pertsonaren prestakuntzarako baliagarria delako; baina, bestetik, ez da premiazkoa, zerbait garrantzigea da (Sistiaga, 2000). Jolasaren definizioaren bitartez, jolasaren ezaugarriak nabarmendu ditzakegu: denbora pasatzeko jarduera bat da, aisialdirako jarduera bat; naturala da, bat-batekoa delako, askatasunaz sortzen delako. Zer gertatuko den jakin gabe jolasten da, eta jostalariek bukaera ezagutu nahi dute. Jolasa giza talde batean gertatzen da, eta horrek justifikatzen du jolasaren izaera. Beste ezaugarri batzuk ere aipa daitezke, hala nola, errealitatetik aldenduta dagoela, eta arau batzuk dauzkala jolasari seriotasuna ematen diotenak; arau horiek, gehienetan, nekea ekartzen dute.

Tourtet-ek (1973), umeen iritzietatik, abiatuta jolasen ezaugarri komunak ateratzen ditu: alaitasuna, ongizatea, gogobetetzea, askatasuna, debeku guztien askatasuna, zabaltasuna, doakotasuna, umearen naturaltasunarekin batera etortzea, eta helburua beraren banean egotea. Esan dezakegu jolasa dibertigarria dela, errealitatetik kanpo dagoela, eta askotan, beste baten papera jokatzen dela.

6.2. JOLASARI BURUZKO TEORIAK

Oso zaila da jolasaren jatorria ezagutzea, baina autore bakoitzak zeinek bere azalpena ematen du (Garcia Monge, 1992):

- Gehiegizko energia: Spencer-ek (1953) dio gorputzak energia gehiegi duela eta soberan dagoen energia helbururik gabeko jardueretan erabiltzen dela.
- Prestakuntzarako ariketaren teoria (Groos, 1916): jolasa etorkizunerako prestakuntza da, jolasak helduen artean



- bizitzeko prestatzen du umea.
- Teoria katartikoa (Carr, 1902): jarduera ikasi berriak finkatzeko eta gaizki ikusita dauden joerak kontrolatzeko, emozio arriskutsuak azaleratzeko.
 - Plazer funtzionalaren teoria (Bühler, 1930): jolasa plazeraren iturri da.
 - Teoria kognitiboa (Piaget, 1959): gure jokaera ingurunearekiko egokitzapen bat besterik ez da. Jolasa adaptazio horren adierazgarri da.
 - Teoria soziokognitiboa (Vygotski): jolasa jarduera kognitiboa da, eta ingurunearekin harremanetan dago, inguruneak ikaskuntzak sortzeko prozesuan laguntzen baitu.
 - Teoria sozioekologikoa (Harlow eta Meyer, 1950): jostalariek parte hartzen dute, baina ez dira partaide bakarrak; inguruneak jokabideak markatzen ditu.
 - Imitazioaren eta esplorazioaren teoria (Wallon, 1941): umeak ikasi berriak dituen esperientziak errepikatzen ditu, imitatzen ditu... Imitazioak esploratzera eramaten du umea.

Teoria horiek guztiak era honetara bildu daitezke: teoria antropologikoa (jolasa autoafirmazioa lortzeko medioa da), teoria distentsiboa (jolasa elementu askatzailea, katartikoa, da), teoria eboluzionista (jolasa hazkundearekin eta ikaskuntzarekin lotuta dago), teoria ambientalak (jolasaren bidez, oreka lor daiteke ingurunearekin).

Claparederen ustez (1951), jolasak izan daitezke:

- Funtzionalak eta orokorrak:
 - o Sentsorialak: entzumenezkoak, ikusmenekoak, ukimenekoak...
 - o Motorrak: jauziak, lasterketak...
 - o Psikikoak
- Funtzionalak eta bereziak:
 - o Borrokak
 - o Harrapaketak
 - o Sozialak
 - o Familiakoak
 - o Imitaziokoak

Borotauren ustez:

- Hitzezko jolasak, imitaziozkoak... (zorizkoak, erritualak, magikoak edo simulaziozkoak...)
- Indarra eta trebetasuna adierazteko jolasak
- Jolas intelektualak (oroimena lantzekoak, gogoeta azkarrekoak, tranpadunak, ...)

Lequeuxen ustez:

- Hartzen duten espazioaren arabera:
 - o Geldoak
 - o Moderatuak
 - o Biziak
- Hasierako eraketaren arabera:



- o Biribilean egindakoak
- o Eserita egindakoak
- o Bikoteka egindakoak
- o Ilaratan egindakoak
- Jolasaren izaeragatik:
 - o Harrapaketakoak
 - o Lekualdaketakoak
 - o Txandakakoak
 - o Objektuekin egindakoak

Hemen, hiru sailkapen azaltzen dira eta sailkapen asko bila daitezke; denak dira baliagarriak testu honetan agertzen diren baldintzak eta gomendioak errespetatzen badira. Gutxienekoa da zer-nolako sailkapenak dauden; gehien interesatzen zaiguna da jolasaren ezaugarri ludikoak eta hezigarriak ez galtzea eta, bide batez, jolasaren bidez ikaskuntza berriak eskuratzea. Adibidez, pertsonen arteko harremanak kontuan izanda, jolasak izan daitezke:

- Imitaziozkoak
- Laguntzekoak (herrena salbatzea, itsua gidatzea...)
- Harreman neutroak; taldean egonda harremanak ez izatea (koruan egindako abestiak)
- Kooperaziozkoak: lana banatu behar denean
- Elkarren kontrakoak: lasterketak, aurkikuntzak, borrokak...

Intentsitatea espazioaren araberakoa izaten da; hau da, espazio zabaletan, joko bererako intentsitate edo ahalegin handiagoa behar da, eta, espazio txikiagoan, berriz, intentsitatea txikiagoa izango da. (Sistiaga, 2000) Espazioan, eraikuntza bertikalak eta horizontalak egin daitezke. Jolas batzuk erantzun zehatz eta bakar bat behar dute, eta beste batzuek, berriz, erantzun piloa izan dezakete. Jolasetan, taldekatzeko modua ere ez da beti bera izaten. batzuetan, txandari itxaron behar zaio, edo ikasleak modu jakin batean jarri behar dira; beste batzuetan, denak batera arituko dira, eta, beste batzuetan, berriz, talde txikietan banatuko dira, eta talde bakoitza autonomia izango da. Alderdi horiek guztiak nahastuta, jolas asko sor daitezke, eta, ezagutzen dugun jolas batetik abiatuta ere, jolas berriak sor daitezke.

Materiala dagoenean irakatsi behar da nola aprobeitatu daitekeen inguruko materiala, nola sortu eta nola erabili beste modu batez gertu dagoena; irakaslea, nolabait, jolasaren partaidea da, proposamenak botatzen baititu. Jolasen bidez, kontzeptu matematikoak, hitzezkoak eta trebetasun sozialekoak lan daitezke.

6.3. JOLASAREN ETA UMEAREN GARAPEN EBOLUTIBOA

Piageten ustez, adimena ingurunearekiko egokitzapena da. Jolasak ingurunearekin harremanetan jartzeko balio du, eta hura ezagutzeko, onartzeko, aldatzeko eta eraikitzeko erabil liteke. Hona



hemen fase horiek:

- Adimen sentsomotorra (0- 2 urte). **Jolas funtzionalak** edo ariketa sinplekoak:
 - o 0-2 hilabete: mugimenduzko eskemak oso sinpleak dira, ez da jolastzat hartu behar.
 - o 2-6 hilabete: jarduera autoelikatuak, plazera ematen dute, eta horregatik errepikatzen dira.
 - o 6-10 hilabete: objektuen lehenengo manipulazioak hasten dira.
 - o 10-14 hilabete: ezagutzen dituen eskema motorrak egoera berrietan aplikatzen ditu; garrantzizkoa da jardueren ordena.
 - o 14-18 hilabete: ezagutzen dituen eredu motorrak nahasteko gai da, eta mugimendu eta esperimenduzko berriak sortzen dira.
 - o 18-24 hilabete: errepresentazioa. Jolas sinbolikoa agertzen da, eta egoera errealak imitatzen ditu, baina testuingurutik kanpo (orrazirik gabe orraztu) Jolasen bidez, ikaskuntzak finkatzen dira, baina ez dira ikasteko erabiltzen.



83. argazkia: zein naiz?

- Adimen errepresentatiboa (2-4 urte). **Jolas sinbolikoak:**
 - . Proiekziozkoak: norberaren nahiak proiektatzen ditu



objektu batean, adibidez panpina, bere irudimenaren zentroa panpina da eta ez bera.

- eskema sinbolikoak (panpinak berak egiten dituen mugimendu arruntak egiten ditu, adibidez, panpinak aurpegia garbitzen du)
- eskema imitatiboa (panpinak imitatzen ditu helduen lanak eta egiteko moduak, adibidez, panpinak erratza pasatzen du norbait imitatuz)
- Asimilaziokoak: norberaren gorputzak asimilatzen ditu tresna baten ezaugarriak, adibidez, gorputzarekin hegazkina egin edo automobil bat eraman kutxa batekin.
- Konbinazioak: pertsonaia batzuk irudikatzen ditu, eta pertsonaia horiek elkartu eta harremanetan jartzen ditu. Jolas sinbolikoak konpentsatzen du berak ezin egin duena, eta norberaren etsipenak gainditzeko edo arriskua balioesteko erabiltzen da (jolas sinboliko kolektiboaren hasiera da, eta gutxi gorabehera 4 urterekin hasten da).




84. argazkia: Ea indarra dugun!!!!

- (4-7 urte) **arauzko jolasen hasiera** (jolas sinbolikoaren bigarren fasea): jolas sinbolikoak ez du horrenbesteko indarririk, eta, pixkaka, jolas arautua sartzen da, baldintza hauek agertzen hasten direlako:
 - o Egiten dituzten jolasak ordenatuta agertzen dira, hau da, "lehenengoz egiten da hau... eta gero egingo dugu beste hori..."



- o Bere inguruko mundua objektibotasun handiagoarekin adierazten du.
- o Taldeko sinbolismoa agertzen da. Egoera kolektiboak bilatzen dira, eta paperak banatu behar dira.



56. irudia: Jolasaren faseak adinaren ezaugarrien arabera.

- Adimen erreflexiboa (7 urtetik aurrera). **Arau-jolasak:** arauak harreman sozialak adierazten ditu, eta taldeak normaltasuna eta erregulartasuna izateko beharrezkoak dira. Piageten ustez, "jolas arautuetan jarduera sentsomotorrak (lasterketak, jaurtiketak...) eta jarduera intelektualak nahasten dira, eta, gainera, kodigo batek markatutako lehia sortzen da kideen artean". Arau horiek finkatzeko, honako fase hauek gertatzen dira:
 - o Arau motorrak: mugimendu bat errepikatzen denean, errituak sortzen dira; gauzak era jakin batean egin behar dira.
 - o Arau hertsagarriak eta alde bakarrekoak: helduaren eskutik datoz, eztabaidatu gabe aplikatzen dira (4-6 urte).
 - o Arau arrazionalak, kideen arteko behaketatik sortuak. Umeak erabakitzen du zer den zuzena eta zer ez, arauen helburua eta zentzua bilatuz. Arauak ez datoz kanpotik, kideen arteko harremanetatik sortzen dira. Arauak aldatu daitezke adostasunik badago. Maila horretara (adostasuna) ez da beti ailegatzen, ume




batzuk ez dute sekulan eskuratzen, eta beste batzuk 5-6 urterekin ematen dituzte lehenengo pausoak.

Perez Sanchezek egiten du honako sailkapena, aurreko egileen ikerketak kontuan hartu ondoren (*Secadas, La Fuente, Coll, Carrillo...*). Horren arabera:

- 0-2 urte: jolasa esperimendatzeko aukera bat da, eta baita gorputza ezagutzeko aukera ere. Haurrak helduarekin gorputzaren bidez harremana izateko premia dauka, eta esan dezakegu hori jolasa dela. Haurrak txikiak direnean, interesgarria litzateke haurarekin jolastea, besoetan alde batetik bestera eramaten ditugula, kulunkatuz, laztanduz edo magalean dagoela eskuko jolasak eginez. Jolasteko objektuak ezkutatu, gauzak agerrarazi eta desagerrarazi, soinuak ateratzen dituzten materialak erabili, tresnak ukitu... egin daitezke. Haurra ibiltzen hasten denean (12 hilabeterekin), oso gustukoa du ibiltzea; honako hauek dira jolas erakargarrienak: gurditxoak eta gurpilak bultzatzea, manipulazio jolasak, otarrak hainbat materialekin bete eta hustea, antoisinak metatzea, urarekin egiten diren jolasak, musika-kutxak eta perkusio-jolasak... Helduarekin hitz egiten hasten direnean, komunikazioa bat-batekoa da, baina haren arreta gureganatu beharko dugu, eta hainbat saio egingo ditugu hori lortzeko. Gero, heldua imitatu nahiko du, errepresentazioko jolasak erabiliz. Bukaeran, beste batzuen ondoan jolastuko du, taldearen barruan bere nortasuna autoafirmatzeko. Etapa horretan, sentipen propiozeptiboak garatuko dira (gihar-tonua, orekaren kontrola mugitzean edo geldi egotean, mugimendu bereiziak –begiak mugitu, aurpegia mugitu gabe–, eta albotasuna). Helburu txikiak gainditzea lorpen handiak irabaztea ekar dezake.
- 3 urte: oreka menderatzen da eta beste trebetasunetan erabiltzen hasten da. Manipulazio lodiak menderatzen dira, gorputza eta gorputz-adarrak menderatzen dira. Ez du mugimenduarekin esperimendatzen orain arte bezala, trebetasuna behar duten mugimenduak koordinatzen hasten da, orekari aurre eginez eta akrobaziara hurbilduz. Honako hauek dira jolas proposenak: jauzi egitea, pilota bat jaurtitzeko jolasak; oraindik ez zaizkio jolas landuak, arauak jarraitzeko zailak direnak, proposatu behar. Oso gustukoa du imitazioak eta keinuak egitea. Erritmo jolasak oso egokiak dira.
- 4 urte: oreka menderatzen du, baita mugimenduan ere; hala, lasterketak, pilotarekin egiteko jolasak, zabuetan egitekoak... sortzen dira. Ingurua interesatzen zaio, eta jolasa gizarteratzearen adierazgarri da; hala, besteekin harremanetan jartzen da taldeko arauak onartzeko eta errespetatzeko. Eskuko trebetasunak agertzen dira, eta baita “rol” jokoak ere.



- 5 urte: taldean sartzen saiatzen da (9 urterekin gertatzen da), umeen artean rolak edo paperak banatzen hasten dira, neska eta mutilen arteko bereizketa egiten da, baina oraindik txikiak dira, 9 urterekin hasiko dira bereizten. Errealitatea eta fikzioa nahasten dituzte, irudimenaren bitartez.
- 6 urte: espazioa menderatzen hasten dira, eta espazioa, pixkaka, jokoetan sartzen da. Bikotekidea aukeratzen du laguntasunagatik.



57. irudia: umeen jolasetan garatzen diren alderdiak

Haur Hezkuntzan, asko gustatzen zaizkie jokoak edo jarduerak errepikatzea, batez ere, menderatzen dituzten arte. Errepikatzeak plazera ematen du. Jolasak estimulazio pertzeptibo-motorra lortzeko erabili behar dira, eta baita adimena garatzeko ere. Gorabehera pertzeptibo motorrak daudenean, irakurmenaren eta idazmenaren garapena mantsotu egingo da.

6.4. JOLASA ETA IKASKUNTZA

Jolasa ikasteko ikaskuntzarekin eta hezkuntzarekin lotura duten prozesuak agertzen dira: analisia, harremanak ezartzea, antzekotasunak eta desberdintasunak bilatzea, aurkikuntza... irudimenaren eta sorkuntzaren laguntzaz. Taldeko jolasetan, gainera, pertsonen arteko harremanak eta hartu-emanak bultzatzen dira.

Ikaskuntza jokabide eta portaera aldaketa baino ez da. Baina, batzuetan, oso zaila da portaera aldaketa hori identifikatzea. Gauza bakoitza ikasteko, momentu bat dago, eta, ikaskuntza bakoitzerako, une egokia bilatu behar da. Jolasaren bidez, motibazioa lortzen da, eta hori oinarrizkoa da ikaskuntza gertatuko bada. Jolasa ikasitakoa finkatzeko eta ikasteko bide berriak bilatzeko bidea izango da.



Vigotskyren ustez, jolasak ikaskuntzarako giroa hobetzen du, egoerak etengabe aldatzen dira, eta horrek norberaren ezagutza eta taldea ezagutzeko bidea zabaltzen du. Jolas-egoerak, oso zorrotza ez bada, estimulazioa, interesa, kontzentrazioa, motibazioa eta aniztasuna eskainiko ditu. Jolasak izaeraren alderdi guztiak hartzen ditu bere barnean: alderdi emozionala, soziala, fisikoa eta intelektuala. Jolasak, elementu hezigarri den aldetik, faktore hauek ditu:

- Hainbat esperientzia motor eskaintzen ditu: egoerak ez dira beti berdinak, egokitzapen motorra bultzatzen du, beti saiatu behar baita mugimendu berri bat egiten.
- Jolasa testuinguran kokatutako ikaskuntzaren errealitate da: egoerak aldatzen direnez, ondo ikusi behar da egoera berrietara egokitzen den ala ez. Egoera eta ikaskuntza bakoitzak esanahi handiagoa du testuinguru jakin batean beste batean baino.
- Jolasaren bidez, umearengana hurbildu gaitzke.
- Jolasak pertsonaren osotasuna hartzen du.
- Jolasaren bidez sortzen diren arazoei erantzun berriak bilatu behar zaizkie, sormena eta araketa bultzatuz.
- Jolasaren bidez, giza harremanak sortzen dira: kolaborazioa, elkarren arteko laguntza, kooperazioa, autoritarismoa, parekotasuna, borroka... Eta, talde barruan, nortasunaren eraikuntza bultzatzen da.

Jolasa garrantzizko potentziala da hezkuntzan, baina are garrantzizkoagoa da aplikazioa. Lleixák (1999) dio jolasak umeen garapena bultzatu behar duela eta egoera dibertigarriak proposatu; ikaskuntzarako bide bat izan behar dutela, baina, horretarako, norberak besteekiko ardua izan beharko du errespetuaren eta solidaritatearen bitartez; era askotako egoerak proposatu behar direla trebetasun guztiak landuko badira, eta haur guztiak izan behar dute onak zerbaitetan; parte-hartzea bultzatu behar dela (saiatu behar da jolasetan inor ez kaleratzen, eta, horretarako, beste baliabide batzuk bilatu beharko dira).



85. argazkia: Zertan ari garen?... Jolasten!!!

Jolas libretik zuzendutako jolasera: Jolas librea bat-batekoa da, umeak autokontrola eta autonomia lortzen du. Jolasa jarduera librea bada, irakaslearen funtzioa ez da inposatzea izango, baina kanpoan ez da gelditu behar, animatzaile gisa parte hartuko du, baliabide berriak eskainiz eta jolasa bideratuz, batez ere, egoerak okertzen direnean, borrokak sortzen direnean eta egoera frustragarriak saihesteko xedez. Jolasaren arrakasta ziurtatu behar da; (Omeñaca, Pueyo, Vicente, 2001) horretarako, egoerak aldatu, irteera berriak bilatu, materiala beste modu batez erabili, espazioa erabiltzen irakatsi, arazo berriak planteatu... behar dira. Irakasleak behatu beharko du ikasleek zer jarrera, mugimendu zailtasun, interes eta lehentasun dituzten. Jolas librea maisuak aukera du umeari behatzeko, bere garapena balioetsi ahal izateko. Jolas librea garrantzi handikoa da maila berekoen artean ikaskuntza lortzeko, umeak bere gorputza arakatu eta horrekin batera gorputzarekin esperimendu behar duelako. Horrez gainera, helduaren arreta bilatuko du, errepresentazioaren bidez bere autoafimazioa bilatuz. Jolasak bere barruan du helburua, eta dibertigarria delako jolasten da.

Jolas libretik egituratutakora pasatzeko proposamenak honako bide honetatik joan daitezke: hasieran, utzi ikasleei bat-batekotasunez jolasten, eta, nola jolasten duten behatu eta gero, pixkanaka egoera egituratuak sartuz joan. (Vygotsky, 1982) Hasieran, egoera eta egitura horiek ezagutzen dituzten egoeretan oinarrituta egongo dira, baina, pixkana, zaildu egingo ditugu; edonola ere, osagai ludikoa ezin da



galdu, jokoak beti izango delako dibertigarria.

Zuzendutako jolasak galdu egiten ditu jolas librearen zenbait ezaugarri; helburu zehatz batzuk bilatzen ditugunean, jolasa estandarizatu, sistematizatu egin behar da; hala ere, malgua izaten jarrai dezake, guztien onarpenarekin, dibertigarria izan behar du eta ikasleen interesak bete behar ditu. Jolas librea bakarrik erabiltzen bada, ume trebeenak beti izango dira protagonista eta jolasa gidatzen saiatuko dira; jolas zuzenduaren bidez, berriz, beste ume batzuei protagonista izateko aukera emango diegu, eta, hala, jolasak dibertsifikatu egingo dira. Edonola ere, ahalik eta parte-hartze handiena lortzen saiatuko gara, eta inor kanporatu ez dadin ahaleginduko gara; era horretako jokoen aurrean saia zaitezte beste irtenbide batzuk bilatzen.

Lankidetzan jolas gidatuaren bidez bultzatu dezakegu, baina, horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dira (Garaigordobil, 1990):

- talde txikietan proposatu behar dira jolasak, talde osoari erabakitzeke aukera emanaz
- haurren arteko komunikazioa errespetatu behar da
- helburu komuna lortzeko balio duten jarduerak erabili behar dira

Jolasa baliabide didaktikoa izan daiteke, honako arrazoi hauengatik:

- Baliagarria da umea ezagutzeko, umeak bere sentimenduak azaltzen baititu.
- Jolasekin ikaskuntza batekiko interesa denbora luzean mantentzeko daiteke, jolasak motibatu eta interesa pizten baitu.
- Jolasaren bidez etsipenak kanpora daitezke (baina adi! gaizki zuzentzen badugu, indartu daitezke). Jolasaren bidez, jarrera positiboak bultzatzen dira besteeikiko.
- Jolasaren bidez ikaskuntza egokitu ahal da umeen interesak kontuan hartuta.
- Jolasaren baliotasuna maisuaren intenzionalitatearen arabera izango da.
- Jolasaren zailtasuna egokitu egin behar da, jolasa baliagarria izango bada.
- Jolasek garapen pertsonala eta garapen motorra bilatuko dute, ikaskuntza-bide bat baita.
- Egoera kooperatiboak bilatuko dira.

Jolas zuzenduaren eta librearen artean ez du alderik egon behar, alderdi horretan behintzat ez. Haur Hezkuntzan, jolastea eta ikastea gauza bera izan behar dute. *Garaigordobil*en ustez, jolas librea haurraren sormenaren, bat-batekotasunaren eta adierazpenaren isla da, eta jolas zuzendua, berriz, kontzeptu eta ezaguera berriak



barneratzeko bidea; dena dela, biek hobetzen dute pertzepzioaren kalitatea, behatzeko gaitasuna eta arreta mantentzeko gaitasuna.

Haurren herri jolasa: Herri jolasak umeei sortutako jolasetan oinarrituta daude, baina ahozko tradizioari esker helarazten dira batzuegandik bestengana. Beraz, jolasak aldatu egiten dira herri batetik bestera, arauak ez direlako berdinak, eta jolasaren mugak ere aldatu egiten direlako. (Sistiaga, 2000). Gaur egun, herri txikietan izan ezik, kalean ez da horrenbestetan jolasten, eta era horretako zenbait jolas galtzen ari dira; interesgarria litzateke eskolan horietako batzuk berreskuratzea, atsedendietan erabili ahal izateko. Umeak jolasa ezagutzen duenean, bere aldagaiak sartuko dizkio, eta bizitza propioa hartuko du jolas horrek, jolas gehienak bizirik baitaude.



86. argazkia: Jokin, 4 urte.

Herri jolasak erakustea erabakitzen denean, Haur Hezkuntzan zailtasun handia ez duten jolasak bilatu behar dira, eta, hasieran, ahal dela, ezagunak izan behar dute, eskolako beste umeei ikusten dizkietenak. Proposamenak irekiak izango dira beti, hainbat aukera eta soluzio emango dituzte, eta egoerak erakargarriak izango dira. Herri-jolasak gizarte honek izan dituen aldaketak jasan ditu, eta, gaur egun, ezaugarri hauek dituzte:

- Sexuen artean desberdintasunak daude espazioa okupatzeko eta jolas motak aukeratzeko orduan, baina alde horiek gero eta txikiagoak dira, ume gutxiago daudelako, eta bi sexu-etako eta hainbat adinetako umeei elkartzeko direlako herri jolasetan



- jarduteko.
- Materialak aldatu egin dira, lehen norberak egindakoak ziren eta, gaur egun, estandarizatuak eta komertzializatuak dira.
 - Klean gutxiagotan jolasten da.
 - Hirietan, gurpileko kirolak ikusten dira.
 - Kirol-jolasak herri-jolasen aurretik jartzen ari dira.
 - Umeek ez dute jolasarekiko gustua galdu.

Jolasa eta afektibitatea: Jolasak afektibitatea jartzen du martxan, jolasen bidez besteak maitatzea eta norberak bere burua maitatzea lortzen da. Izaeraren sendotasuna, autoafirmazioa, autoebaluazioa eta autoezagutza bideratzen dira. Baina ingurunea garrantzi handikoa da, egoera batzuek pertsonaren izaera sendotuko baitute eta beste egoera batzuek, aldiz, kontrakoa, ziurtasun falta, lotsa gehiago izatea, konfiantza falta... eragingo baitituzte.

Haur Hezkuntzan, giroa gozoa izango da, umeak bere nortasuna onartu behar du, konfiantza lortuko badu. Umeak adierazten dituen sentimenduak balioetsi behar dira, eta bueltan etorri behar zaizkio. Umeak hartzen dituen erabakiak errespetatu behar dira, umeari aurrea hartzeko aukera eman behar zaio. Ahal den neurrian, umearen ekintzak ez dira zuzendu behar. Ikasteko prozesua ez da azkartu behar (Wolfgang, 1984). Mugak jarriko dira, errespetua mantentzeko edo mina ez hartzeko, eta giza ohiturak aurrera eraman ahal izateko. Norberaren irudia onartu eta indartu behar da. Umearen afirmazioa ezin da kasualitatearen esku utzi, jarduerak oso zorrotzak badira edo askatasunez jarduten uzten ez badute, edo sariak edo irabazteak urduritasun handia eragiten badu, antsietatea, angustia eta jardueraren aurkako jarrerak azalduko dira. Ahalegina egin behar da haur guztiek elkar onar dezaten, autoestimua indartuz eta alaitasuna bultzatuz. Parte-hartzea bultzatuko da, taldeko kide izatearen sentipena indartuz. Jolasek eta jarduerak dibertigarriak izan behar dute, helburuak ez du irabaztea izan behar, jarduerak integratzaileak izango dira (gogoratu aulkien jokoan gertatzen dena: kanpoan lehenengo gelditzen den haurrak ez du ia jolasteko aukerarik eta horrek etsipena dakar. Era horretako kasuetan, beste aukera batzuk bilatu beharko dira).



87. argazkia: Bakoitza gure jolasetan gaude.

Irakaslearen papera garrantzi handikoa da; irakasleak ez du oso gogorra izan behar; ez du jokoa manipulatu behar; sustatzaile papera beteko dute eta xehetasun guztiak hartuko ditu kontuan. Gertaera guztien aurrean liluratuta gelditzen dela eta dena sorpresa dela eman behar du aditzera. Sortzailea eta dinamikoa izango da, eta jolasteko gogoia edukiko du.

6.5. PROPOSAMEN PRAKTIKOAK

Jolasa hezkuntzarako tresna da, ingurunearekin harremanetan jartzeko eta ingurunea ezagutzeko eta menderatzeko baliagarria. Interesgarria da kontuan izatea 4 urte bete arte umea egozentrikoa dela, eta umeek ez dutela elkarrekin jolasten, bata bestearen ondoan baizik. Jolasa arakatzaila da: jolasaren bitartez, objektuak aztertu eta haren aukerak aztertzen ditu. Haurrak 4-6 urte dituenan, beste umeekin hasten da jolasten, eta talde-jolas sortu; ikasleak helburu komun bat lortzeko elkartzen dira, baina ez dituzte eredu estrategikoak erabiltzen. 6 urtetik aurrera, jolas kooperatiboak helburu komun bat izango du, eta, gainera, pentsamendu estrategikoa jarriko da martxan. Ezaugarri horrek eta 9.5. eta 9.7. puntuetan agertzen diren aholkuak hartu behar dira kontuan proposamen praktikoak egin aurretik. Proposamen praktikoak egiteko aztertu honako lauki hau (58. irudia). Lehenengo zutabean, gainditu beharreko gaitasunak agertzen dira, eta bigarren zutabean, praktikarako proposamenak.



Gainditu beharreko helburuak	Praktikarako proposamenak
<p>Tonuaren kontrola hobetzea</p> <p>Alde baterako edo besterako joera izatea (nagusitasun laterala)</p> <p>Abilezia eta trebetasun berriak eskuratzea</p> <p>“Arrisku-egoerak” gainditzea</p> <p>Orekak lantzea</p> <p>Arauak ezartzea</p>	<p>- Jarrera- edo egoera-aldaketak</p> <p>- Keinuen imitazioa</p> <p>- Jarduera azalera ez gogorretan</p> <p>- Orekak</p> <p>- Garraioak</p> <p>- Disoziazioak eta igoerak</p> <p>- Oinarrizko abilezia eta trebetasunak</p> <p>- Txanda partekatzea edo itxarotea</p>

58. irudia: Jolasak lantzeko proposamen praktikoak helburuaren arabera.

Aurreko laukian oinarrituta, hona hemen praktikara eramateko zenbait proposamen (*Bueno, Manchón, Moral, 1990; Caiati, 1986; García Monje, 1992; Godall, 2000; Laguía, Vidal, 2001; Lleixá, 1999; Sistiaga, 2001*):

1. Tonuaren eta jarreraren kontrola, hainbat egoerataro egokituz.
 - a. Jarrera aldaketan oinarritutako jokoak.
 - b. Jarduerak azalera edo gainazal ez gogorretan.
 - c. Keinua edo mugimenduak imitatzeko jokoak.
 - d. Egoera-aldaketa dakarten jarduerak (lasterketak, lekualdaketak, eserita, zutik...).
2. Mugimendua gorputzaren alde bat erabiltzeko moduan egokitu.
 - a. Jokoak hainbat objektu eta mugikarirekin.
 - b. Objektuak garraiatzeko jarduerak.
 - c. Hankekin eta eskuekin kolpekatzeko jarduerak (mugimendu estatikoak eta dinamikoak).
3. Abilezia berriak ikasteko, gorputz atalen mugimenduen disoziazioa.
 - a. Atalak disoziatzeko jokoak.
 - b. Pilotekin banaka zein taldean jolasteko jokoak.
4. Arriskua kontrolatu eta jarduera motorrekiko gustua bultzatu, mugei eta aukerei behatuz edo aztertuz.
 - a. Igotzeko eta zintzilikatzeko jarduerak.
 - b. Oinarrizko abileziak garatzeko jarduerak (jauziak, birak, lekualdaketak...).
5. Espazioarekiko edota objektuekiko oreka erabili egoera estatiko eta dinamikoetan.
 - a. Jarreraz aldatzeko jarduerak koltxoneta gainean.



- b. Grabitate-zentroa aldatzera behartzen duten jarduerak.
- 6. Jokoaren arauak onartu eta elkar lagundu.
 - a. Oinarrizko arauak eta txandak errespetatzen ikasteko jarduerak.
 - b. Mugikariak partekatzeko moduko jarduerak.

6.6. **BIBLIOGRAFIA:**

- ADARRA M.R.P (1984) *En busca del juego perdido*. Bilbo: Cuadernos de Adarra,
- ARNOLD, R. (1966) *Cómo jugar con su hijo*. Buenos Aires:Kapelusz.
- BANTULÁ, J. (1998) *Juegos motrices cooperativos*. Bartzelona: Paidotribo.
- BUENO, M. L.; MANCHON RUIZ, J.I.; MORAL, P. (1990) *Educación Infantil por el movimiento corporal. Identidad y autonomía personal*. Segundo ciclo 3- 6 años. Madrid: Gymnos.
- CAIATI, M.; DELAC, S.; MULLER, A. (1986) *Juego Libre en el jardín de infancia*. Bartzelona: CEAC.
- CHATEAU, J. (1958) *Psicología de los juegos infantiles*. Buenos Aires: Kapelusz.
- CLAPAREDE, E. (1951): *Teorías del juego*. Madril:Pax.
- DEVIS. J, y PEIRÓ, C. (1992): *Nuevas perspectivas curriculares en la Educación Física: la salud y los juegos modificados*. Bartzelona: INDE.
- GARCIA MONGE, A. (1992) *Didáctica de las actividades físicas organizadas (juegos e iniciación deportiva) en educación infantil y primaria*. Proyecto docente para palaza de TEU. Palencia: Universidad de Valladolid. (material inédito policopiado)
- GARAIGORDOBIL, M. (1990): *Juego y desarrollo infantil. La actividad lúdica como recurso psicopedagógico: un propuesta de reflexión y de acción* Madril: Seco Olea.
- GARAIGORDOBIL, M. (1992): *Juego cooperativo y socialización en el aula. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación, para el desarrollo socio-afectivo en niños de 6 a 8 años*. Madril: Seco Olea.
- GODALL, T. HOSPITAL, A. (2000) *50 Propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de Educación Infantil*. (3-4 años). Bartzelona: Paidotribo.
- GODALL, T. HOSPITAL, A. (2000) *50 Propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de Educación Infantil*. (4-5 años). Bartzelona: Paidotribo.
- GODALL, T. HOSPITAL, A. (2000) *50 Propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de Educación Infantil*. (5-6 años). Bartzelona. Paidotribo.
- GUILLEMARD, G.; MARCHAL, J.C. y otros (1988): *Las cuatro esquinas de los juegos* Lleida: . Agonos.
- GUITARD, R. (1990) *101 Juegos no competitivos*. Bartzelona: Graó.
- GUITARD, R. (1999) *Jugar y divertirse sin excluir*. Bartzelona: Graó.
- GUTIERREZ, M. (1989) *140 juegos de Educación Psicomotriz*. Sevilla: Wanceulen.
- GUTTON, P. (1982): *El juego de los niños*. Bartzelona: Hogar del libro.
- IMERONI, A. (1989) *El juego como medio educativo*. Revista de E.F., 25. zk., 5-11. or.
- LAGUÍA, M. J.; VIDAL, C. (2001-7ª edición) *Rincones de actividad en la escuela infantil. (0-6 años)*. Bartzelona: Grao.
- LEQUEUX, P. (1984): *Juegos: más de 1.000, para todo lugar, casa, escuela, campo,*



- playa...* Bartzelona: Reforma de la Escuela.
- LIMBOS y BEAUREGARD (1974): *Grandes juegos*. Bartzelona: Vilamala.
- LINAZA, J. (1986) *El juego en los niños de preescolar*. En Enciclopedia de la Educación Madril: Preescolar, Diagonal/Santillana, 7. alea, 7. kap.
- LINAZA, J. (1991): *Jugar y aprender*. Madril: Alambra.
- LLEIXÀ, T. (1999): *Juegos sensoriales y de conocimiento del cuerpo*. Bartzelona: Paidotribo.
- LLEIXÀ, T. (3ª edición): *La educación Física en preescolar y ciclo inicial -4 a 8 años-*. Bartzelona: Paidotribo.
- LLEIXA, T. (2000) *Haur hezkuntza 0-tik 6 urtera*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo. [Itzulpenaren koordinatzailea. Xabier Etxaniz. Jatorrizko izenburua: Educación Infantil de 0 a 6 años. Paidotribo. Barcelona. 1998?]
- MOOR, P. (1981): *El juego en la educación*. Bartzelona: Herder,
- NOVEMBER, J. (1983): *Experiencias de juego con preescolares*. Madril: Morata
- OMEÑACA, R.; PUYUELO, E. VICENTE, J. (2001) *Explorar, Jugar, cooperar*. Bartzelona: Paidotribo.
- ORLICK, T. (1990): *Libres para cooperar, libres para crear*, Bartzelona: Paidotribo.
- ORTEGA, R. (1986): *Juego y pensamiento en los niños*. In Cuadernos de pedagogía, 133. zk.
- ORTEGA, R. (1990): *Jugar y aprender*. Sevilla: Diada.
- PIAGET, J; LORENZ, K. y ERIKSON, E.H.(1982): *Juego y desarrollo*. Bartzelona: Crítica.
- PELEGRIN, A. (1975): *Cada cual atiende su juego*. Madril: Cincel.
- RUIZ, F.; GARCIA MONTES, E. (2001) *Desarrollo de la motricidad a través del juego*. Madril: Gymnos.
- RUIZ, F.; GARCIA MONTES, E. (2001) *Propuestas de juegos con: globos, cuerdas, papeles, envases, saquitos*. Colección Educación Motriz a través del juego Infantil. Madril: Gymnos.
- RÜSELL, A. (1970): *El juego de los niños*. Bartzelona: Herder.
- SISTIAGA, J.J. (2001) *Apuntes del juego en Edad Infantil*. Postgrado de Educación Infantil para centros concertados. Donostiako Iraskasle Eskola. UPV/EHU. EHU. Donostia. (argitaratu gabeak)
- SPENCER, Z.A. (1981): *150 juegos y actividades preescolares*. Bartzelona: Ceac.
- STANT, M.A. (1976): *El niño preescolar. Actividades creadoras y materiales para juego*. Buenos Aires: Guadalupe.
- TORBERT, M. (1990): *Juegos para el desarrollo motor*. Mexiko: Pax México.
- TRIGO AZA, E. (1989): *Juegos Motores y Creatividad*. Bartzelona. Paidotribo.
- VIDAL, J. (1988): *Juego y educación*. Madril: Akal.
- VIZCARRA, M.T.; ARRIBAS, S. (2001) *Apuntes del curso de desarrollo perceptivo-motor para niños de 0 a 3 años*. Donostiako Udala. (argitaratu gabeak)
- VYGOTSKI, L.S. (1982): *El juego y su función en el desarrollo psíquico del niño*. Cuadernos de Pedagogía, 85. zk., 39-48. or.
- WOLFGANG. Ch. (1984): *Cómo ayudar a los preescolares pasivos y agresivos mediante el juego*. Bartzelona: Paidós.
- ZAPATA, O. (1990): *El aprendizaje por el juego en la etapa material y preescolar*. Mexiko: Pax México.



ZAPOROZHETS, A.V. (1948): *El cambio de los impulsos del niño de la Edad preescolar según sean las condiciones y los motivos de su actividad*. En Rev. de la Academia de C.C. Pedagógicas de la RSFSR. 14. faszikulua.

6.7. LAN PRAKTIKOAK EGITEKO BIBLIOGRAFIA:

- ADARRA M.R.P (1984) *En busca del juego perdido*. Bilbo: Cuadernos de Adarra.
- ARNOLD, R. (1966) *Cómo jugar con su hijo*. Buenos Aires: Kapelusz.
- BANTULÁ, J. (1998) *Juegos motrices cooperativos*. Bartzelona: Paidotribo.
- BUENO, M. L.; MANCHON RUIZ, J.I.; MORAL, P. (1990) *Educación Infantil por el movimiento corporal. Identidad y autonomía personal*. Segundo ciclo 3-6 años. Madril: Gymnos.
- GARAIGORDOBIL, M. (1990): *Juego y desarrollo infantil. La actividad lúdica como recurso psicopedagógico: un propuesta de reflexión y de acción*. Madril: Seco Olea.
- GARAIGORDOBIL, M. (1992): *Juego cooperativo y socialización en el aula. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación, para el desarrollo socio-afectivo en niños de 6 a 8 años*. Madril: Seco Olea.
- GODALL, T. HOSPITAL, A. (2000) *50 Propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de Educación Infantil*. (3-4 años). Bartzelona: Paidotribo.
- GODALL, T. HOSPITAL, A. (2000) *50 Propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de Educación Infantil*. (4-5 años). Bartzelona: Paidotribo.
- GODALL, T. HOSPITAL, A. (2000) *50 Propuestas de actividades motrices para el segundo ciclo de Educación Infantil*. (5-6 años). Bartzelona: Paidotribo.
- GUILLEMARD, G.; MARCHAL, J.C. y otros (1988): *Las cuatro esquinas de los juegos*. Lleida: Agonos.
- GUITARD, R. (1990) *101 Juegos no competitivos*. Bartzelona: Graó.
- GUITARD, R. (1999) *Jugar y divertirse sin excluir*. Bartzelona: Graó.
- GUTIERREZ, M. (1989) *140 juegos de Educación Psicomotriz*. Sevilla: Wanceulen.
- LINAZA, J. (1986) *El juego en los niños de preescolar*. En Enciclopedia de la Educación Preescolar, Diagonal/ Santillana, Madril, 7. alea, 7. kap.
- LINAZA, J. (1991): *Jugar y aprender*. Madril: Alambra.
- LLEIXÀ, T. (1999): *Juegos sensoriales y de conocimiento del cuerpo*. Bartzelona: Paidotribo.
- LLEIXÀ, T. (3ª edición): *La educación Física en preescolar y ciclo inicial -4 a 8 años-*. Bartzelona: Paidotribo.
- LLEIXA, T. (2000) *Haur hezkuntza 0-tik 6 urtera*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo. [Itzulpenaren koordinatzailea. Xabier Etxaniz. Jatorrizko izenburua: Educación Infantil de 0 a 6 años. Paidotribo. Bartzelona. 1998?]
- NOVEMBER, J. (1983): *Experiencias de juego con preescolares* Madril: Morata.
- OMEÑACA, R.; PUYUELO, E. VICENTE, J. (2001) *Explorar, Jugar, cooperar*. Bartzelona: Paidotribo.
- PELEGRIN, A. (1975): *Cada cual atiende su juego*. Madril: Cincel.
- RUIZ, F.; GARCIA MONTES, E. (2001) *Desarrollo de la motricidad a través del juego*. Madril: Gymnos.
- RUIZ, F.; GARCIA MONTES, E. (2001) *Propuestas de juegos con: globos, cuerdas, papeles, envases, saquitos*. Colección Educación Motriz a través del juego.



Infantil. Madril: Gymnos.

STANT, M.A. (1976): *El niño preescolar. Actividades creadoras y materiales para juego*. Buenos Aires: Guadalupe,

TRIGO AZA, E. (1989): *Juegos Motores y Creatividad*. Bartzelona: Paidotribo.